

HAUTAKETA PROBEN DEIALDIAREN OINARRIAK HONAKO LANPOSTU HAU BITARTEKO ERREGIMENEAN BETETZEKO: TEKNIKARI BAT, ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALA, AZPIESKALA TEKNIKOA, ERDI MAILAKO TEKNIKARI MOTA, A2 AZPITALDEA: BERDINTASUNEKO TEKNIKARIA.

Epaimahaiak, 2020ko urriaren 7an, honako erabaki hau hartu du aho batez:

“Lehenengoa.- Lehiaketa fasearen honako emaitza hauek onartzea:

1go ABIZENA	2 ABIZENA	IZENA	LAN- ESPERIENTZIA	PRESTAKUNTZA	DENERAKOA
PALACIOS	LANDERA	ARAITZ	5,7	1,75	7,45
GARCÍA	CALATAYUD	YENIFER	7	0,3	7,3

Bigarrena.- Lehiaketa eta oposizio faseen honako emaitza hauek onartzea:

1go ABIZENA	2 ABIZENA	IZENA	1go ARIKETA	2 ARIKETA	3 ARIKETA	LEHIAKETA	DENERAKOA
PALACIOS	LANDERA	ARAITZ	39,34	41,4	20,27	7,45	108,46
GARCÍA	CALATAYUD	YENIFER	37,35	28,53	12,81	7,3	85,99

Hirugarrena.- Hautatua dela adierazi eta puntuazio altuena lortu duen hautagaiaren izendapena proposatzea: **PALACIOS LANDERA, ARAITZ.**

Laugarrena.- Erabaki hau Santurtziko udalaren iragarki-taula elektronikoa argitaratuko da, interesdunek bere kontra jar ditzaketan errekurtsok ere adieraziz.”

Hiru laneguneko epean, prozesuaren emaitza udal iragarki elektronikoen taulan azaldu eta biharamunetik zenbatzen hasita, hautatutako pertsonak Barne Araudi eta Giza Baliabide arloko bulegoan (Casa Torre Jauregia, Sabino Arana 5, bigarren eskuina) honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

- a) Nortasun Agiriaren eta 2.1.e) atalean eskatutako tituluaren kopia erkatua.
- b) Zinpeko aitortpena edo promesa, zeregin publikoak betetzeko eskumenik gabe utzi ez dutela eta diziplina-espediente bidez herri-administrazioen zerbitzutik baztertuta ez dagoela adieraziz, Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 56.1.d) artikulua terminoetan, Administrazioak emango duen ereduaren arabera.
- c) 2.1.c) atalean eskatzen den baldintza egiaztatzen duen zinpeko aitortpena, Administrazioak emango duen ereduaren arabera.
- d) 2.1.g) atalean eskatutako baldintza egiaztatzea:
 - Prestakuntza: Organo ofizialak (unibertsitatea edo Herri Administrazioa) egindako egiaztagiria.

- Gutxieneko esperientzia: lan-bizitzaren egiaztagiria eta egindako funtzioen egiaztagiria, erakunde kontratugileak emana.

Horrez gain, hautagaiak agiriak edo datuak daramatzala bertaratu beharko da izendapena formalizatzeraz, gizarte segurantzaz alta ematera, soldata non jaso eta abar zehaztera.

Horrela argitaratu da dagozkion ondorioetarako, jakinaraziz administrazio-bidean behin-betikoa ez den egintza horren aurka interesatuek **GORA JOTZEKO ERREKURTSOA** jartzeko aukera dutela honako hau argitaratu eta hilabeteko epean Santurtziko Udaleko alkate-udalburuaren aurrean, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 2015/39 legearen 121 eta 122. artikuluetan ezarritakoari jarraituz. Hori guztiari euren eskubideak hobeto defendatze aldera egoki deritzen bestelako ekintza edo errekurtsoei ezertan eragotzi gabe.

Santurtzin, 2020ko urriaren 14an.

EPAI-MAHAIAREN IDAZKARIA.